

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakariordearen ebazpenaren bidez, Adingabeen eta Familiaren Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (kodea: 77.001) izendapen askez betetzeko deialdia onartzen da

Beharrezkoa da lanpostua betetzea, Adingabeen eta Familiaren Arloko zuzendariorde teknikoarena, kodea 77.001.

6/1989 Legeak, Euskal Funtzio publikoarenak, 46.1 artikuluan xedatzen du funtzionarioentzat gordetako lanpostuak, lanpostu zerrendetan ezarrita dagoenaren arabera beteko direla, lehiaketa eta izendapen askeko sistemen bitartez.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lanpostuen zerrendan, zeina Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 63/2016 Foru Dekretuaren bidez onartua eta 2016ko irailaren 30ean ALHAOn argitaratu baitzen, ezarri da Adingabeen eta Familiaren Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua izendapen aske bidez beteko dutela euskal administrazio publikoetako karrerako funtzionarioek.

Bat etorri Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoarekin, zeinak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko erregelamendua onartzen duen,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Honen bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Adingabeen eta Familiaren Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (77.001 kodea) izendapen aske bidez betetzeko deialdia egitea.

Bigarrena. Onarpena ematea deialdia arautzen duten eta ebazpena honen eranskinean ageri diren oinarriei.

Hirugarrena. Administrazio-bidea agortzen duen ebazpen honen kontra, bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, Jurisdikzio honen erregulatzaila den uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46.1 eta 8.1.a) artikuluen arabera, (uztailaren 14ko BOE), eta Diputatuen Kontseiluko apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuko 30.3 artikuluekin erlazioan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Araudia onartzen duena (apirilaren 27ko ALHAO).

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 8a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen administrazio kontseiluko lehendakaria
EMILIO SOLA BALLOJERA

ERANSKINA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Adingabeen eta Familiaren Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua izendapen askez betetzeko deialdiaren oinarriak

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Deialdi honen helburua da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Adingabeen eta Familiaren Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua izendapen askez betetzea.

Bigarrena. Lanpostuaren deskribapena

Kodea: 77.001

Lanpostu-mota: B (bakuna).

Dedikazio erregimena: ehuneko 100 (osoa).

Betetzeko era: I (Izendapen askea).

Administrazioa: EAE (Euskal Autonomia Erkidegoa).

Sailkapen taldea: A.

Eskalak: Eskalak: 1-2 (Administrazio Orokorra edo Berezia).

Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe.

Destino-osagarriaren maila: 29.

Berariazko osagarriaren zenbatekoa: 45.176,75 euro.

Lantoki herria: Vitoria-Gasteiz.

Ordu prestutasuna: 100 ordu, eta horietatik 40 ordu urteko ordutegitik kanpo egin beharko dira.

Hirugarrena. Betekizunak

Euskal Administrazio Publikoetako karrerako funtzionarioa izatea, A sailkapen taldekoa eta Administrazio Orokorreko Eskalakoa edo Administrazio Berezikoa izatea, edo horien baliokidekoak, halaxe xedatzen baitu Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuak.

Laugarrena. Eskabideak

Interesdunek, baldin eta hirugarren oinarrian ezarritako betekizunak betetzen badituzte, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakariari zuzendu behar dizkiote eskaerak, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Erregistro Orokorrean (San Prudentzio kalea 30, 1.a, 01005 Vitoria- Gasteiz) edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan xedatutako eraren batean aurkeztuko dituzte. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaera horretan, interesdunek, beren datuez gain, hurrengo hauek jaso beharko dituzte:

A) Ikasketa tituluak.

B) Karrerako funtzionario izendapena, non agertu beharko duten taldeak eta eskalak edo, bestela, zein kidegori dagokion.

C) Nola herri administrazioan hala enpresa pribatuan izandako lanpostuak.

D) Egindako ikasketak eta ikastaroak eta dakizkien hizkuntzak.

E) Izangaiek alegatzea egoki irizten dituen bestelako merezimenduak.

Eskaerarekin batera, izangaiek eskatutako betekizunak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dituzte.

Bosgarrena. Ebazpena

Izangaiek alegatutako merezimenduak ikusita, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren zuzendari-kudeatzaileak izendapen proposamena egingo dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari.

Izangaien arteko inor deitutako lanposturako egoki jotzen ez bada, deialdia bete gabe utz daiteke.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Administrazio Kontseiluko lehendakariaren ebazpenaren bidez egingo da esleipena.

Seigarrena. Aurka egitea

Oinarri hauek, deialdi bera eta horien ondorio diren administrazio egintza guztiak aurkatu ahal izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezarritako kasu eta moduetan.